

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure bezeroekin izango dugun harremana ahalik eta gertuena izango da, hau da, gure zerbitzuak jasotzen dutenean momenturo jakin nahiko dugu beraien iritzia. "Feedback" jaso nahiko duguetengabe gure zerbitzuak hobetzen joateko eta atzean ez geratzeko kompetentziarekiko.

Harreman sendo eta zintzo bat izateko, behar-beharrezkoa izango da gure harremana gardentasunean oinarritzea, bai gure aldetik, egiten ditugun aldaketa eta berrikuntza guztiak argitaratuz eta bai bezeroen aldetik, kexak eta hobekuntzak proposatuz inongo arazorik gabe.

Gainera, guk ez dugu soilik zerbitzua emango eta bakoitza bere etxera joango da, baizik eta hainbat ekintza antolatuko ditugu bezeroekin harremana ahalik eta estuen izateko. Gabonetan saski bat emango dugu bezeroen artean, kurtso bukaeran, ekainan afari bat egingo dugu eta hilero sari batzuk antolatuko ditugu bezero fidelentzat.

Noizean behin, ongi funtzionatzen ari garen jakiteko eta hobekuntzak ezarri behar ditugun jakiteko inkesta bat antolatuko dugu. Gainera, jendeak inkesta betetzeko pizgarri bezala beherapenak jarriko ditugu.